



Korreoseko bulego berritua. Espazioz aurrekoa baino haundiagoa da, eta posta kutxatila sartu eta ezkerretara daude.

Korreos haunditu eta berritzeko obrak bukatu dituzte, eta zabaldu dute ofizina berritua

■ 400 m²ko instalazioak ditu orain Korreosek (aurreko doblea) eta ekipamendu berria ■ Publikoa atenditzeko lekua lehenago zegoenaren doblea da ia, eta argitasun haundikoa.

HERNANIKO Korreoseko bulego berriak edo berrituak zabalik daude, osteguna ezkerotik. Oblatosen dagoen ofizina horrek, obrak egin aurretik zuen espazio doblea du orain, eta batez ere publiko atenditzeko lekua lehen baino askoz haundiagoa da, eta argitasun gehiago du. Sarrera lehenengo leku beretik du ofizina.

Obrak uztaile aldera hasi ziren eta azaroaren erdialdean bukatuta egotea espero zen, baina, azkeneko errema-

teak luzatu egin dira eta aste honetan bukatu dituzte lanak. Hernaniko Korreoseko arduraduna eta langileak oso gustora daude obrak nola gelditu diren ikusita, eta uste dute jendea ahalik eta zerbitzu egokiena emateko pauso garrantzitsua dela.

Karteria haunditu eta posta kutxatila gehiago jarri

Obra berriarekin Korreoseko instalazio guztiak haunditu dira, baina, gehiena haunditu denetako bat karteria da. Kar-

teria ofizinararen atzeko partean dago, eta obretan zeuden bitartean publiko atenditzeko jarrira zegoen ofizina hori guztia da.

Bestalde, posta kutxatila gehiago ere jarri dira Korreoseko ofizinan, eta lehen zeuden lekutik aldatu egin dituzte gainera. Orain arte, 254 posta kutxatila zeuden eta orain 306 jarri dituzte. Ofizinan sartzeko eskubitara zeuden lehen eta orain, publikoarentzako bulego barrura sartu eta ezkerretara daude ja-

rrita. Posta kutxatila gehienak hartuta daude, baina, oraindik batzuk libre ere bai.

14 langile plantilan

Hernaniko Korreosen gaur egun 14 pertsona ari dira lanean. 10 pertsona postariak dira eta besteak bulego lanean aritzen dira. Funtzionamenduari dagokionez, ez da orain artekotik aldaketa nabarmenik izango. Hala ere, aurrera begira ez da deskartatzen zerbitzu gehiago eskaintzeko aukera. □

TXANTXANGORRI

Ehiza txapelketa gaur

TXANTXANGORRI elkarteak ehiza txapelketa antolatzen du urte bukaeran, eta gaur jokatuko da aurreneko buelta. Bigarrena, berriz, datorren igandean izango da. Ehiztariek faisanak, eperrak eta oilagorrak bota eta puntu gehiena ateratzen duenak eramango du txapela. Iaz Iñaki Loiarrek irabazi zuen.

Plater Tiratzea, Santa Barbaran
Datorren larunbatean, abenduak 28, San Silvestre Saria jokatuko da Santa Barbaran, Mini Foso modalitatean. Apuntatzeko, egun bertan, 10:30etan. □

PELOTA

Bi finalak galdu

HERNANIK Gipuzkoako txapelketako bi final zituen ostiralean, eta biak galdu zituen. Hoz eta Lujanbiok 30-17 galdu zuten Irungo Ramuntxoren kontra. Aitor Gorrotxategik, berriz, 22-1 galdu zuen Azkoiatiren kontra. Azkoitiarrek oso pelota bizia atera zuten eta Hernaniko ardura-dunak oso haserre zeuden, partidu bukaeran. □

FUTBOLA

Aloña Mendi - Hernani

GORENGO mailako taldeak ligako partidu garrantzitsua du, gaur, 15:30etan, Oñatin. □

'Hernani 2003' Kronikako kalendarioa salgai

Zure kioskoan, 2 euroan.



Ur-jolasak umeentzat, gaur, gaztelu puzgarri eta guzti

HERNANIKO Kirol Patronatuak antolatuta, ur-jolasak egingo dira gaur Kiroldegiko piszinaan. Ekintza umeentzako dago antolatuta eta lehenbiziko aldiz, gaztelu puzgarri bat ekarriko dute, jolaserako. Begiraleak Hernaniko igeriketa taldekoak dira. Gaur, 10:00etatik 14:00etara, Kiroldegian. □

Gabonetan, egun batzuetan Kiroldegia itxita egongo da

EGUBERRI jaiak direla-eta, Kiroldegia itxi egingo dute egun batzuetan. Honako egun hauetan egongo da itxita egun osoan: abenduaren 24, 25 eta 31ean; eta urtarrilaren 1 eta 6an. Goizez itxita: abenduaren 28an; ordu batzuk itxita: abenduaren 23an (10:00etatik 14:00etara). □

expert TELEBISTAK - BIDEOAK - BIDEOKAMARAK - ETXE TRESNAK

ANEXO

Izpizua kalea 21 - Tel. 943 55 03 81 - 20120 HERNANI

Gabonetan eskaintza bereziak:
Etxeko tresna onenak, prezio onenetan.
ANEXOk Eguberri jai zorientzuak opa dizkizue.
ZORIONAK

HABANA SWIN

AKADEMIA LATINO BERRIA
HERNANIN (Larramendi kalean)

KUBA eta KARIBeko erritmoak
Salta, batxata, txa txa txa, merengea...

Tel.: 943 55 69 13 - 616 26 38 71

IKASTAROAK (urtarriletik aurrera)
Helduentzat:
Astelhehen eta asteazkena: 21:00-22:00
Astearte eta osteguna: 19:00-20:00
Txikiakentzat:
Astelhehen eta asteazk.: 17:30-18:30 / 18:30-19:30
Astearte eta ostegun.: 19:00-20:00
Helduentzat:
Mantentimenduko gimnasia berria: 09:30-10:30
Irakasle Kubatarra: DAYAMI

SANTA BARBARA

PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoak aldatzen ditugu

● R-Megane Coupe Sport 1.4	SS-BJ
● Peugeot 306 - XS A.A., llantak	SS-BF
● Seat Ibiza - Diesela 3 ate	SS-AJ
● Opel Corsa 1.2 5 ate	SS-AK
● Seat Ibiza - 1.2 5 ate	SS-AM
● Renault Express Diesela	SS-AS
● Lada Niva	SS-AP
● Land Rover - diesela	SS-P
● Land Rover - kaja, disesela	SS-AF

.....eta hainbat kotxe merke.



Karta Txapelketetako sarituak, atzo, Jubilatu Etxean.

Santo Tomasetan, sariak eta festa Jubilatu Etxean

ATZO, Santo Tomas eguna, festa doblea izan zuten Jubilatu Etxean. Lehenengo 2002 urteko Karta Txapelketetako saribanaketa egin zuten. Sarituak, Musean Txapeldun:

Carrera eta Barrado; bigarren: Bermejo eta Nuñez. Tutean Txapeldun: Martin eta Yuste; bigarren: Saez eta Aizpiorea. Puntuari Txapeldun: Anabitarte eta Egileor; bigarren: Apeze-

txea eta Aizpiorea. Eskoban Txapeldun: Perez eta Atxaga; bigarren: Baro eta Caba.

Saribanaketa ostean, txistorra atera zen bertara azaldu ziren guztientzat. □

EMAKUMEAREN ZENTROA

Gela-bete emakume, Eguberrietako sukalde ikastaroan

EMAKUMEAREN Zentroak sukaldaritza ikastaroa antolatzen du Gabonetan. Aurten, Luis Irizarren Euskal Sukaldaritza Eskolako ikasleak aritu ziren errezetak erakusten eta Biteriko sukalde gela leporaino bete zen. Erakusten aritu zirenek teorikoa ez ezik, klase praktikoa ere eman zuten: nola prestatu, itxura... □



Sukaldariak klase praktikoa eman zuten Biterin.

SAN SO Leku **JATE** Otordu **ETXEA**
 N atsegina atseginerako
 A Martidegi Tel.:943 331572
 T auzoa 943 553260
 E **Aurtengo gabonetan**
 G **Sansonategi zuekin.**
 I **ZORIONAK DENORI**

EMAKUMEENTZAT IKASTAROA
 "Taldean partehartzea eta jende aurrean hitz egitea lantzeko"
 Urtarrila eta otsailen: Asteartetan
 Bi orduz: 14:30 - 16:30
 19:30 - 21:30
 Lekua: Biteri Kultur Etxea
 Izen emateko epea: **Urtarrilaren 13a**
LOGOTIPO LEHIAKETA: Epea: 2003-01-10
 "Berdintasun Kontseiluaren Logoa"
 Oinarriak eta informazioa:
 Ongintza Patronatuko Berdintasun Saila
 Karobieta 63 - Hernani - Tel.:943 55 78 54

HITZ BITAN

✓ OSIÑAGA

Osiñagako Mus Txapelketa, gaur, Elorrabin. Osiñaga auzoko XII Mus Txapelketa gaur jokatuko da, Elorrabi sagardotegian. Sarituentzat txerrikumeak, urdaiazpikoak, arkumeak eta abar izango dira. Gaur, arratsaldeko 16:00etan, Elorrabi sagardotegian. Inskripzioa: 10 euro.

✓ MUSIKA BANDA

Kontzertua, Udaletxeko arkupeetan. Musika Bandak kontzertua emango du, gaur, Udaletxeko arkupeetan. Zortzi abesti joko dituzte Manuel Sagarnaren aginduetara. Gaur, 13:00etan.

✓ KROSSA

Karabelgo Herri Krossa, gaur. Karabel auzoko Herri Kross famatua gaur goizean jokatuko da. Lau kategoriatan jokatuko dute, adinaren arabera, eta lana ere desberdina egin beharko dute. Txikienek 600 metro, helduagoek 1.200, eta helduek 8.300 metro. Izena emateko irteera baino lehenago egin liteke. Krossa goizeko 10:00etan hasiko da.

✓ ETXERAT

Etixeraten Gabonetako zozketa, 27an. Etxeratek Gabonetako zozketa egingo du abenduaren 27an, enkartelada egin eta gero. Lehenengo zenbakia agertzen ez bada, bigarrenak izango du aukera, eta hori ere agertzen ez bada, hirugarrenak. Astebeteko epea izango da zenbakia aurkezteko.

✓ ITXASPE ARANDEGIA

0002 zenbakiari tokatu zaio saria. Itxaspe arrandegiak Gabonetako zozketa egin du. Irabazleak arrai eta marisko lote bat jasoko ditu. Zenbaki saritua 0002 da. Irabazlea agertzen ez bada, ordezkoko zenbaki bat dago: 5003. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
- ▶ Gaez: Zatarain Andoain. Arteta z/g ☎ 943 290802



Zapa 8 - 943 33 15 06 - Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu

HERNANI HIZKUNTZAK (HERNANI ENGLISH)
 Gure Ingelesetxea
 - Urtarrilaren 7an hasiko gera berriro.
 - Helduak, gazteak, txikiak... Cambridge, Advanced eta First azterketak prestatzeko.
Informazioa eskatzeko:
 Deitu Alan / Joe
 ☎ 943 33 11 08
 KALE NAGUSIA 41, 1

Urdin
 Poltsa, lepoko, pitxi, lurrin eta abar
 Italia eta Parisko azken moda, Olentzero eta erregeetako zure oparientzako.
EGUBERRI ON DENORI.
 URDIN DENDA
 Montebideo kalea 1 - HERNANI - (EPO eta atletismo pista artean)

BEGIRA OPTIKA

 URBIETA 8, TEL.: 943 55 41 54 HERNANI

Xarobe
 DELICATESSEN SINCE 1983
Produktu Bereziak
 Nagusia 17 • 20120 HERNANI
 ☎ 943 55 21 27
 POSTA ELEKTRONIKOA: xarobe@euskalnet.net

ANTZIOLA KAFETEGIA

 Ogia, pastelak, gozokiak, kafea, refreskoak...
ANTZIOLA OKINDEGIA GOZOTEGIA KAFAA
 Bi ordenagailu, jendearen erabilerarako.
 Erakusketak.
 ANTZIOLA 3 - Tel. 943 55 17 91 MONTEBIDEO, 3 behea
Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu guztioi.